

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Udalaren orubea besterentzeko prozedura irekia

Alkatearen 2018ko ekainaren 15eko ebazpen bidez erabaki da, apirilaren 3an onartutako administrazio klausula berezien agiri honen arabera egitea, Lapuebla de Labarcako udalaren jabetzako izan eta Artxanda kaleko zk.g.an dagoen higiezinaren besterentzeko enkantea arautuko duen lizitazio hau.

1. Erakunde esleitzaila.

Erakundea: Lapuebla de Labarcako Udala.

2. Kontratuaren xedea.

Inbentarioko 1. epigrafeko (ondasun higiezinak) 18 zenbakiko higiezinaren besterentzea, oinarri hauetan finkatzen diren baldintzen arabera. Hauxe azalpena:

– Higiezinaren izena eta azalpena:

– Kokapena: Artxanda kalea, zk.g.

– Azalera: 227,75 m².

– Mugak:

– Iparraldean: Artxanda kalea eta 3 poligonoko 343 lurzatia.

– Hegoaldean: 3 poligonoko 385, 386, 390 eta 391 lurzatiak.

– Ekialdean: 3 poligonoko 472, 343, 391, 390, 386 eta 385 lurzatiak.

– Mendebaldean: 3 poligonoko 494 eta 383 lurzatiak.

– Titulua: inbentarioaren ziurtagiria.

– Guardiako Jabetza Erregistroa: Lapuebla de Labarcako 38 liburua, 1255 liburukia, 12. orria, 3681 finka, lehen inskripzioa.

– Kargak eta zamak: ez dauka.

– Inbentarioa: 1. epigrafea, hiri finkak; ondasunaren zenbakia: 18.

– Jabariaren izaera: ondarea.

– Aprobetxamendua: propioa.

– Sailkapen urbanistikoa: hirikoa.

– Kalifikazio urbanistikoa: egoitzarako SUR-2.

– Katastro erreferentzia: 3. poligonoa, 447 lurzatia.

– Oharrak: lurzati oso irregularra, 5 metro zabal bidera ematen duen fatxada bakarrean (iparraldekoa) eta oso zabalera gutxikoa hondo eraikigarrian. Hondo hori, gainera, biratzen da bide publikoekin paralelo geratzeko iparraldean eta hegoaldean; hortaz, atzeko aldean guztiz inguratuta geratzen da fatxada bide horietara duten higiezinekin. Esandakoaren ondorioz, bakarrik ditu 35 m² erreal eraikigarri solairuan. Lursailaren kota, bestetik, fatxadak ematen duen kaleko sestra azpitik dago, hainbat metro beherago.

– Kontratu mota: pribatua.

3. Esleitzeko era eta lizitazio oinarria:
- Esleitzeko era: enkantea.
 - Izapidetzea: arrunta.
 - Prozedura: irekia.
 - Lizitazio oinarria: 12.915,00 euro, hortik gorantz egin daitekeelarik, zergak sartu gabe.
4. Bermeak: Behin-behineko bermea 387,45 euro izango da, eta behin betikoa, esleipen prezioaren ehuneko 5, zergak aparte.
5. Aldaerak edo hobekuntzak: ez dira onartzen.
6. Agiriak eta argibideak eskuratzea.
- a) Erakundea: Lapuebla de Labarcako Udala.
 - b) Herria eta posta kodea: Lapuebla de Labarca, 01306 Araba.
 - c) Telefonoa: 945607051.
 - d) Faxe: 945627230.
 - e) Kontratatzailearen profila: www.lapuebladelabarca.eus.
 - f) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino egun bat lehenago.
7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea.
- a) Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun natural, iragarki hau ALHAOn edo kontratatzailearen profilean argitaratu (beranduen egiten dena) eta hurrengo egunetik aurrera.
 - b) Aurkeztu beharreko agiriak: Administrazio klausula berezien agiriko 8. klausulan zehaztutakoak.
 - c) Aurkezteko lekua:
 - 1. Erakundea: Lapuebla de Labarcako Udala.
 - 2. Helbidea: Plano plaza, 9.
 - 3. Herria eta posta kodea: Lapuebla de Labarca, 01306, Araba.
 - 8. Eskaintzak irekitzea.
 - a) Erakundea: Lapuebla de Labarcako Udala.
 - b) Eguna: Eskaintzak aurkezteko azken egunetik hurrengo hamargarren egun balioduna ekitaldi publikoan.
 - c) Ordua: 13:30ean.
9. Esleitzeko irizpideak: prezioaren arabera soilik.
10. Iragarki gastuak. esleipendunak ordainduko ditu.
11. Bestelako argibideak / kontratatzailearen profila: administrazio klausula berezien agirian jasotakoak. Horren kopia hemen eskuratu daiteke: www.lapuebladelabarca.eus. Eroslearen kontura izango dira eskriturak egiteko gastuak, besterentzearen ondoriozko zergak eta jabetza erregistroan inskribatzea. 16/2017 Foru Dekretuaren arabera, hala behar izanez gero, OEZ igorriko da besterentzean zein den katastro balioaren gainean, salbu eta esleipen prezioa handiagoa bada.
12. Besterentze akordioa eraginkorra izango da baldin eta Arabako Foru Aldundiak horren berri duela adierazten badu, indarreko legedian jasotzen denez.

Lapuebla de Labarca, 2018ko ekainaren 15a

Alkatea

MAIDER MURILLOTREVIÑO